



Ehunmilak 2016

Azaroaren 5ean irekiko da izenematea

*“Ehunmilak” ultratrail (EHM-168k) “Goierriko 2 haundiak” (G2H-88k) “MariMuruMendi (MMM 42k)
Uztailaren 8, 9, eta 10an*

³⁵₁₇ Ehunmilak ultratrailaren 7. Edizioan parte hartzeko aukera eta izenematea, **azaroaren 5ean 17:00tan irekiko da eta ekainaren 2an itxiko da (biak barne). Guztira 1.250 dortsal, izango dira eskuragarri honela banatuta: Ehunmilak 500, Goierriko 2 Haundiak 500 eta MariMuruMendi 250.**

³⁵₁₇ Izenematea internet bidez egin ahal izango da, berrituta datorkigun www.ehunmilak.com web orri ofizialean.

³⁵₁₇ Izenematearen salneurri edo prezioak:
Ez dira aldatu iaiztik. Mantendu egiten dira bai prezioak eta iaz jarritako epeak. Lehenago izena emanda merkeago izango da. Araudian eskuragarri http://www.ehunmilak.com/wp-content/uploads/2015/11/Araudia_2016_eu.pdf

Izen-emate data	ehunmilak	g2h	MMM*
2015/11/05etik2016/02/11ra	130 €	80 €	42 €
2016/02/12tik2016/04/08ra	145 €	95 €	47 €
2016/04/09tik2016/06/02ra	165 €		

*mmm-ren kasuan, txip horia daukanak inskripzioa 2 euro gutxiago ordainduko du

³⁵₁₇ Mediku agiria derrigorrez aurkeztu beharko da. Azken eguna ekainaren 3a

2016an ere puntuagarri izango da Ehunmilak UTMB eta Hardrock lasterketetarako

Frantziako probarako (2017korako), Ehunmilakek 6 puntu eta G2H-k 4 puntu banatuko ditu.

Proba amerikarrean parte hartzeko baliogarri izango da gure lasterketak amaitzea (EHM, G2H).



EHUNMILAK LASTERKETAK DATUETAN; GOGORTASUNA ETA EDERTASUNA

³⁵₁₇ Ehunmilak 168km/D+11.000m ibilbidea dauka. Berau bukatzea Mont Blanc-eko Ultratraila bukatzea baino erronka gogorragoa da.

³⁵₁₇ “Goierriko bi haundiak” 88km/D+ 6.000 ibilbidea dauka. Aukera ezin hobea da gau bakarreko probez gozaten dutenentzat edo etorkizunean proba “erreginerako” jauzia emateko asmoz lurralde honekin eta bertako jendearekin harremanetan jarri nahi dutenentzat.

³⁵₁₇ Mila boluntariorik gora egongo dira Gipuzkoa osatzen duten 5 mankomunitateetan banaturik. Beraiek bermatzen dituzte urtero estatu guztian beste inork ez dauzkan babesak eta giroa.

³⁵₁₇ Ibilbideak bi parke natural oso esanguratsuz gozatzeko aukera ematen du. Txindoki (1346m) eta Aizkorri (1528m). Hurrenez hurren Euskadiko eta munduko Trail runningaren bi ikono mitiko.

EHUNMILAKEN BIHOTZA: BERTAKO JENDEAREN GRINA

Ehunmilak 2016

Beasain (Gipuzkoa), 2015ko azaroak 3

Informazio gehiago: www.ehunmilak.com

Facebook: www.facebook.com/ehunmilakultratrailg2h

Harremanetarako: ehunmilakultratrail@gmail.com

Twitter: @ehunmilakg2